

# IRAGARKIA

## 220. ALDIZKARIA - 2021eko irailaren 17a

### 2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

#### 2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK ETXAURI

### Auzolana arautzen duen ordenantza. Behin betiko onespena

Etxauriko Udalak, 2021eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, hasiera batez onetsi zuen Auzolana arautzen duen ordenantza. Argitaratu zen 2021eko 135. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 10ean.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik egin; hortaz, behin betiko onetsi da auzolana arautzen duen ordenantza.

Etxaurin, 2021eko abuztuaren 17an.–Alkatea, Idoia Aritzala Etxarren.

### ETXAURIN AUZOLANA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

#### 1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da arautzea “auzolan” hitzez deitutako norberaren lana, obrak eta zerbitzuak egiteko, Etxauriko Udalaren eskumenekoak, udalerrriaren alde, nahitaez eta ordainketarik jaso gabe.

#### 2. artikulua. Oinarria.

Honako hauek arautzen dute ordenantza: hasteko, Etxaurin auzolana egiteko dagoen ohitura historikoa, eta horretaz gain, egoki denaren arabera, 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa (12., 53. eta 54. artikulua), eta uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua eta horrekin bat datozenak (foru lege horrek hizpide du Nafarroako Toki Administrazioa).

#### 3. artikulua. Nahitaezkotasuna eta salbuespenak.

–Auzolana egitera beharturik daude:

A) Etxaurin erroldatuta daudenak, bertan bizi direnak eta/edo bertako zentsuan daudenak, hemezortzi (18) eta berrogeita hamabost (55) urte bitartekoak, biak barne.

Halaber, auzolana egin beharra izanen dute Etxaurin etxebizitza izanik ere iraunkorki bertan bizi ez direnek.

Bizilagunen batek bere burua udal erroldatik kentzen badu auzolana ez egiteko eta herrian bizi dela frogatzen bada, sartuko da auzolanaren ordenantza bete behar dutenen zerrendan.

B) Pertsona bakarrak aritu beharko du familia-unitate bakoitzeko. Honako hau hartzen da "familia-unitatetzat":

–Bikote ezkondu edo egonkor batek osatua, gehi odol-ahaidetasuneko ahaideek, bigarren mailaraino, baldin etxebizitza berean bizi badira, hots, Udaleko Biztanleen Erroldan orri berean agertzen direnek.

C) Familia-unitateko ordezkariaren ordezkariaren beste batek egiten ahal du auzolana, betiere horretarako egokia baldin bada eta bere borondatez aritzeko prest badago. Ordezkapen horren berri aurretik eman behar zaio Udalari, eta parte-hartzaileen zerrendan sartuko du, aseguruarekin egin behar diren komunikazioetarako.

–Auzolana egitetik salbuetsiko dira honako hauek, nahiz eta nahitaez auzolana egiteko adin tartean egon:

A) Lanerako ezintasun egoeran daudenak, behar bezala frogaturik baja-agirien eta berrespen agirien bidez.

B) Desgaitasun fisikoa, intelektuala edo sensoriala dutenak. Aldeko txostena beharko da, desgaitasunaren ziurtagiriarekin (% 33ko desgaitasuna edo handiagoa).

C) Preso daudenak.

Salbuetsitakoek borondatez egin dezakete auzolana.

#### 4. artikulua. Asegurua.

Toki-erakunde honek bere gain hartuko du istripuen arriskuaren estaldura, lan honetan aritzera behartuta daudenentzat.

#### 5. artikulua. Kudeaketa.

1. Etxauriko Udalak publiko egingen du auzolanak egin beharra, egun batzuk lehenago, behar den bandoa ezarriz iragarki-taulan eta herriaren web-orrian, eta horren berri emanez etxe guztietako postontzietan eta bidalketak eginez helbide elektronikotara edo telefono mugikorretara, herritarrek horien berri eman badute.

2. Oro har, larunbat eta igandeetan egingen da. Baldin auzolanean parte hartzera beharturik dagoen batek ezin badu parte hartu, horren berri ematen dio Udalari, jakinarazpena egin eta 24 orduko epean. Arrazoiak beti justifikatu beharko dira, eta agiri egokien bidez frogatu. Desgaitasunaren arabera, Udalak erabakiko du ea betebeharra beste uneren batean bete behar den.

3. Norberaren ordeztuak beste batek egin dezake auzolana, horretarako egokia baldin bada eta bere borondatez aritzeko prest badago. Ordezkapen hori aldeztu aurretik jakinaraziko zaio Udalari.
  4. Orobat, urtean diru kopuru bat ordainduz libratu daitezke auzolanetik. Udalak osoko bilkuran onetsiko du zenbateko hori; 2021. urterako, 30 euro izanen da. Kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratu daitezke diru hori, eta, borondatezko epean ordaintzen ez bada, betearazpen-bidetik erreklamatu daitezke, % 20ko errekaruarekin.
  5. Familia-unitate bateko bi lagunek parte hartzen badute auzolan batean, hurrengo auzolanetik salbuetsiko dira.
  6. Urte bateko auzolanak ez dira kontuan hartuko hurrengo urteerako.
  7. Auzolan bakoitzeko lana Udaleko kide batek zuzenduko du.
  8. Bizilagunek Udalari adierazten ahal diote auzolanaren ordeztu ordaindu egingen dutela.
  9. Egindako lanen bidez inor ez da auzolanetik libratuko baldin Udalak ez badiu oniritzia ematen.
6. artikulua. Parte-hartzea jendaurrean jartzea.

Auzolanetan parte hartzen dutenak zerrenda batean jarriko dira, eta zerrenda jendaurrean jarriko da.

7. artikulua. Zehapenak.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, behartuta egonik eta salbuetsita egon gabe derrigorrezko auzolanen batera joaten ez direnek prestazioaren zenbatekoa ordaindu beharko dute; 30 euro, auzolan bakoitzeko.

Urtero berrikusiko eta zenbatetsiko dira zenbatekoak eta zehapenak, eta bizilagun guztiei emanen zaie horien berri, 5. artikuluan ezarritako bideen bitartez.

## **XEDAPEN OROKORRAK**

Lehenbizikoa.—Ordenantza honetan xedatu ez den orotan, jarraituko zaio Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko Foru Legeari eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko Foru Legeari.

Bigarrena.—Ordenantza hau indarrean jarriko da, eta ondorio juridiko osoak sortuko ditu, behin betiko onetsi eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

Iragarkiaren kodea: L2112788